



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Kasu-markapena euskara-
gaztelania kode-alternantzian:
euskara bigarren hizkuntza duten
elebidunak aztergai**

*Endika Uriarte Orbañanos
eta Amaia Munarriz-Ibarrola*

117-124 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.14>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Kasu-markapena euskara-gaztelania kode-alternantzian: euskara bigarren hizkuntza duten elebidunak aztergai

Endika Uriarte Orbañanos¹, Amaia Munarriz-Ibarrola¹
ELEBILAB¹, UPV/EHU¹
endika.uriarte@ehu.eus

Laburpena

Ikerketa honen helburua da ikertzea zein diren euskara bigarren hizkuntza (H2) duten elebidunek euskara-gaztelania kode-alternantzian (KA) dituzten hobespenak kasu-markapenari dagokionez. Halaber, ikusi nahi da euren elebitasun profilak (hizkuntza-dominantziak) eta KAren erabilera eta jarrekek eraginik ote duten hobespen horietan. Horretarako, H2 euskara duten 24 elebidunek KAdun esaldiak zituen onargarritasun juzkuen ariketa bat egin zuten eta elebitasun-profila ezaugarritzeko *Bilingual Language Profile* (BLP) izeneko galdetegia. Emaitzetan ikusten da, oro har, subjektuaren hizkuntzaren arabera dela hobesten den kasu-markapena, H1 euskaldunen antzera. Bestalde, ez da korrelaziorik aurkitu KAdun esaldien onargarritasun mailaren eta parte-hartzaileen dominantziaren artean, baina korrelazio negatiboa ageri zen KAren erabilerekin.

Hitz-gakoak: Kode-alternantzia, kasua, euskara-gaztelania, elebitasun-profila, onargarritasun juzkuak

Abstract

The objective of this study is to examine the case marking preferences in Basque-Spanish code-switching (CS) among bilinguals who have Basque as their second language (L2). Furthermore, it seeks to investigate whether their bilingual profiles (language dominance) and their use of and attitudes towards CS influence these preferences. To this end, 24 L2 Basque bilinguals completed an acceptability judgment task comprising CS sentences and the *Bilingual Language Profile* (BLP) questionnaire to identify their bilingual profile. The results are that, in general, case marking is driven by the case-system of the subject's language, as observed in L1 Basque speakers. Additionally, no correlation was identified between the acceptability of CS sentences and the participants' dominance. However, a negative correlation was observed when considering CS use.

Keywords: Code-switching, case, Basque-Spanish, bilingual profile, acceptability judgement task.

1. Sarrera eta motibazioa

Psikolinguistikako hainbat ikerketak erakutsi dute euskararen kasu-markapena, eta bereziki, ergatiboaren kasu-marka oso ezaugarri gramatikal zaurgarria dela (Zawiszwski *et al.*, 2011; Ezeizabarrena, 2012; Elortegi, 2018; Rodríguez-Ordóñez, 2020; Huarte, 2022). Aipatutako lan horiek ergatiboaren erabilera aztertu dute batik bat haur txikiengan edo hiztun berriengan arreta jarrita. Oro har, haur euskaldunek ergatiboaz jabetzeko eta sistematikoki erabiltzeko denbora behar dute (are gehiago euskara H2 dutenek); gaztetxoek sarritan ergatiboaz ohartzeko zailtasunak dituzte (bereziki H2 bada) (Mazkian, 2022) eta baita euskara H2 goiztiarra duten helduek ere (Zawiszwski *et al.*, 2011). Halaber, euskara erabiltzeari utzi dioten artean edota erabilera asko murriztu dutenengan, ergatibo kasu-markaren isiltzea hizkuntza-higadura fenomeno adierazgarria izan daitekeela iradoki da (Tardienta, 2021; Uriarte, 2024).

Kode-alternantzia (KA) esaldi berean bi hizkuntza konbinatzeari deritzon ohiko fenomeno da komunitate elebidunetan (MacSwan, 2004; Bullock & Toribio, 2009; Bellamy *et al.*, 2022). Euskal Herrian ere fenomeno arrunta da (Amonarriz, 2008; Epelde & Oyharçabal, 2010;

Lantto, 2015), Lanttoen (2015) adibide honetan ikus daitekeen moduan: “NI NENGOEN *que me dolía el alma*” (Lantto, 2015, 43 or.). KA hizkuntza-narriaduraren adierazletzat hartu izan da, hizkuntzetako batean elebidunen gaitasunik ezak eragin dezakeelakoan (Cook, 2002; Hughes *et al.*, 2006). Hala ere, beste ikertzaile batzuek elebidunen gaitasun handiaren ebidentziatzat jotzen dute KA (Poplack, 1980; Chan, 2009; Bullock & Toribio, 2009). Hain zuzen, KAri buruzko azterketetan identifikatu diren murrizketa gramatikalek ideia hori babestu dute; KA ez da “librea”, hau da, edozein konbinazio ez da posible. Bestela esanda, arau jakin batzuen arabera erabiltzen da, eta arau horiek elebidunen gaitasun handiaren ebidentziatzat jotzen dira (Poplack, 1980; Myers-Scotton, 1993). Halaz, ezaugarri gramatikal desberdinak dituzten hizkuntzen arteko alternantziek elebidunen gramatika sakontzeko aukera ematen dute (Poplack & Meechan, 1998). Ikerketa psikolinguistikoek erakutsi dute, gainera, elebidunen profilen arabera hobespenak desberdinak izan daitezkeela (Bellamy & Parafita Couto, 2022).

Murriztapen gramatikalei dagokienez, euskara-gaztelania aztertu duten lan gehienek determinatzaile-sintagma (DS) nahasien generoan jarri dute arreta, *el/la* GAZTA, *el/la* EZTI(A) erakoak (Parafita Couto *et al.*, 2015; Iriondo, 2017; Munarriz-Ibarrola *et al.*, 2022). Subjektuen kasu-markatzea ere euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa KAren ikerketarako gramatika-ezaugarri interesgarria da, hizkuntzek ezaugarri gramatikal desberdinak izanda (gaztelania eta frantsesa hizkuntza nominatibo-akusatiboak dira, eta euskara ergatibo-absolutiboa), aukera ematen baitu zein nagusitzen den ezagutzeko (Epelde & Oyharçabal, 2020). Oyharçabal eta Epelde (2017) eta Epelde eta Oyharçabalek (2020) KA eta ergatiboaren kasu-markapenaren arteko harremana ikertu zuten euskara-frantsesa —gehienbat— eta euskara-gaztelania arteko KAn, ACOBA corpuseko ekoizpenez osatutako lagin txiki batean. Uriartek (2023, 2024) ere KA eta ergatiboaren arteko harremana izan zuen ikergai egindako kasu azterketa batean, eta joera orokorrak ezagutzeko H1 euskara zuten helduen onargarritasun juzkuen ariketa bat ere egin zuen.

Lan honen helburua da Uriarteren tesi-egitasmoari jarraituz, kasu-markapenaren eta KAren arteko harremanean sakontzea H2 euskaldunen ebidentziak lortuta onargarritasun juzkuen ariketa baten bidez. Halaber, ikusi nahi dugu ea elebitasun profilak eta KAren erabilerak eta jarrerak eraginik ote duten euskara-gaztelania KAdun esaldietan aurkitutako hobespenetan. Horretarako, 2. atalean KA eta ergatiboa aztertu duten lanen emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu, eta 3. atalean ikerketa enpirikoaren muina aurkeztuko dugu, hots, zehaztasun metodologikoak (3.1. azpiatalean) eta emaitzak (3.2. azpiatalean). Ondoren, ondorioak 4. atalean eta amaitzeko 5. atalean etorkizunerako planteatzen den norabidea.

2. Arloko egoera eta helburuak

Oyharçabal eta Epelde (2017) eta Epelde eta Oyharçabalek (2020) ACOBA corpuseko ekoizpeneko datuetan oinarrituta, honako joera hau ikusi zuten: aditz iragankorra gaztelaniaz eta subjektua euskaraz zeudenean, subjektua ERG markarekin agertzen zen (FALLO HORREK *te ha recocido* ‘akats horrek izorratu zaitu’) eta euskarazko aditza iragankorra zenean frantsesezko subjektuak ez ziren ergatiboaren markekin ekoizten (*LES NOTABLES beti frantsesez hitz egiten zuten*, ‘pertsonalitateek beti frantsesez hitz egiten zuten’). Beste ondorioetako bat izan zen ergatiboaren marka ez zela gaztelaniaz zuten sintagmekin erabiltzen (*¿*Qué hizo LA NESKAK?*), hau da, ergatiboaren marka euskara hutsean zeuden DSein ageri zela, baina ez DS nahasiekin.

Ergatiboaren eta KAren arteko harremanean sakontzeko asmoz, Uriartek (2023, 2024) euskara H1 zuen kasu-azterketa bat egin zuen, elkarrizketa glotobiografiko bat eginez, ekoizpen hori aztertuz eta onargarritasun ariketa bat eginaraziz (ariketa hori euskara H1 zuten 10 parte-hartzailez osatutako kontrol-talde batean ere egin zuen). Ikerketa horretan ondorioztatu zuen kasu-azterketaren parte-hartzaileak elkarrizketa sasi-espontaneoan ergatiboaren marka isiltzen zuela, eta onargarritasun juzkuen ariketan ERG marka zuten KAdun esaldi iragankorrak eta iragangaitzak (subjektua euskaraz eta predikatua gaztelaniaz) maila berean onartzen zituela. Kontrol-taldeak, ordea, euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatua zuten esaldietan, oro har, euskararen kasu-morfologia nahiago zuten; iragankorretan *-k* markadunak hobesten zituzten eta iragangaitzetan *-k* marka gabekoak. Gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua zuten

esaldietan, hobespenak bestelakoak ziren: iragangaitzetan zein iragankorretan -k marka gabekoak hobesten ziren, hots, sistema nominatibo-akusatiboetan bezalako markatzeak. Hortaz, onargarritasun-ariketa horren arabera, pentsa liteke kasu-markaren ezarpena ez dela aditz jokatua dagoen hizkuntzaren arauen arabera, baizik eta subjektua zein hizkuntzatan dagoen horrek erabakitzen duela. Uriartek eta Munarriz-Ibarrolak (in press) lagin hori zabaldu dute 20 parte-hartzailetara, eta oro har emaitza berdinak lortu dituzte. Gainera, frogatu dute onargarriagoa dela ergatibo marka testuinguru ergatiboetan isiltzea, absolutiboetan ekoiztea baino, euskara hutsezko analisisetan aurkitu denaren antzera (Zawiszewski *et al.*, 2011; Rodríguez-Ordóñez, 2020; Huarte, 2022). Horrek inplikazio argiak eta sendoak dakarzkie murriztapen gramatikalak azaltzeko proposatu diren teoriari (Myers-Scotton, 1993a; MacSwan, 2007; Chan, 2009).

Lan honen helburua da H2 euskara duten parte-hartzaileek KAdun esaldietan kasu-markapenari dagokionez dituzten hobespenak ezagutzea, batetik, eta euren hobespenak elebitasun profilaren eta KArekiko erabilera eta jarreraren arabera diren aztertzea. Gure hipotesia da H2koek, gaztelaniazko sistemaren eraginez, euskarazko subjektudun esaldietan ez dutela kasu-markapen hobespen argirik erakutsiko, kontuan izanda H2 helduengan aurkitu diren aldeak (Zawiszewski *et al.*, 2011; Rodríguez-Ordóñez, 2020). Bestalde, aurreikusten dugu harremana egongo dela elebidunen hizkuntza-dominantziaren, KArekiko jarreraren eta erabileren eta onargarritasun juzkuen emaitzen artean. Zenbat eta dominantzia handiagoa erakutsi euskaraz, orduan eta onargarritasun maila altuagoa, orduan eta KArekiko jarrera hobe eta KAren erabilera altuagoa erakustea espero dugu (Lantto, 2015).

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan H1 gaztelania eta H2 euskara duten 24 elebidun bizkaitarrek hartu zuten parte. Horien adin tarteak 18 urtetik 69ra artekoak da (batez besteko adina = 47,30; desbiderazio estandarra = 14,05). Parte-hartzaile guztiek euskara eta gaztelania erabiltzen dute gehiago edo gutxiago egunerokoa. H2 euskararen jaketuntza adinaren batezbestekoa 6,60 da; desbiderazio estandarra = 6,20.

Materialak

Onargarritasun juzkuen ariketa Uriartek (2023) diseinatu zuen. Bertan, euskara-gaztelania KAdun esaldiak zeuden subjektu eta predikatuaren arteko alternantzia zutela: subjektua euskaraz eta predikatua gaztelaniaz, eta alderantziz, subjektua gaztelaniaz eta predikatua euskaraz. Parte-hartzaileek Likert eskala bat baliatuta (1-4) esaldi horiek puntuatu behar zituzten, 1 ‘oso txarra’ eta 4 ‘oso ondo’. 1. taulan ikusten denez, 3 aldagai zeuden (subjektuaren hizkuntza, predikatua eta subjektuaren kasu-marka) eta 8 baldintza. Horrela, 64 esaldi esperimental (8 esaldi baldintzako) eta beste horrenbeste betegarri zeuden, guztira 128.

1. taula: Onargarritasun-juzkuen ariketako baldintza bakoitzeko esaldi baten adibidea. Iturria: norberak egina.

Subjektuaren hizkuntza	Predikatua	Kasu-marka	Esaldia
Subjektua euskaraz	Igor.	-K	Gizon horrek <i>ha comprado un pastel</i> .
		Ø	Gizon hori <i>ha comprado un pastel</i> .
	Igaitz.	-K	Kirolari horrek <i>ha subido al pódium</i> .
		Ø	Kirolari hori <i>ha subido al podium</i> .
Subjektua gaztelaniaz	Igor.	-K	<i>Ese hombre</i> pastel bat erosi du.
		Ø	<i>Ese hombre</i> pastel bat erosi du.
	Igaitz.	-K	<i>Ese deportista</i> podiumera igo da.
		Ø	<i>Ese deportista</i> podiumera igo da.

Bestalde, elebidun profila zehazteko, Birdsong eta besteren (2012) Bilingual Language Profile (BLP) galdetegiaren euskal egokitzea baliatu genuen (Arantzeta, 2016). Galdetegi horren ondoren, KAre erabilera eta jarrerari buruzko datuak lortzeko beste 4 galdera gehitu ziren. BLPa elebidunen bi hizkuntzen dominantzia neurtzen duen galdetegi da eta elebitasun maila ebaluatzeko tresna da. Lau arlotan banatzen da galdetegi: H1 eta H2aren jabekuntza (historia), hizkuntza bien erabilera hainbat esparrutan (erabilera), elebidunak hizkuntza bietan duen gaitasun-maila (gaitasuna) eta hizkuntza biekiko duen jarrera (jarrera). BLPak dominantzia kuantifikatzeko aukera ematen du, -218 eta +218 artean. Zenbat eta dominantzia handiagoa izan, orduan eta muturretik hurbilago dagoen zenbakia izango da (- hizkuntza batean, eta + bestean), -20 + 20 balioen artean daudenak elebidun orekatutzat hartzen dira (Amengual, 2016). +20 eta +50 arteko balioa lortzen duten elebidunak neurrizko dominantzia dute hizkuntza batean, eta +50 eta +218 arteko balioak dituztenak irmoki hizkuntza bat nagusi dute.

Prozedura


Parte-hartzaileei *Microsoft Forms* bidez bidali zitzairen onargarritasun juzkuen ariketa, eta behin hori eginda, BLPa bete zuten (gehitutako 4 galderekin). Parte-hartzaileek, oro har, 35-45 minutu eman zituzten bi galdetegiak betetzen.

3.2. Emaitzak

Euskara H2 duten parte-hartzaileen onargarritasun ariketaren emaitzetan ikusten da, oro har, onargarritasun txikia dutela subjektu eta predikatu arteko KAdun esaldiek (batezbestekoa 1,4/4; $SD= 0,51$). 1. irudian ikus daitekeen moduan, hobespen esanguratsuak aurkitu dira baldintzaka. Euskarazko subjektuetan aditza iragankorra denean onargarriagoa da ergatibo marka ekoiztea isiltzea baino (1,53 vs 1,42, $p < 0,05$, Wilcoxon testaren arabera). Iragangaitza denean, berriz, onargarriagoa da isiltzea ekoiztea baino (1,60 vs 1,42, $p < 0,001$). Gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua duten esaldietan, oster, aditza iragankorra zein iragangaitza denean ergatibo-markarik ez duten esaldiek erakusten dute onargarritasunik handiena (1,42 vs 1,23 iragankorretan, eta 1,44 vs 1,18 iragangaitzetan, bietan $p < 0,001$).

Beraz, esan daiteke kasu-markaren ezarpena ez dela aditz jokaturik dagoen hizkuntzaren arauen arabera, baizik eta subjektuaren hizkuntzak agintzen duela. Emaitza horiek bat datoz euskara H1 duten helduek erakutsi dituzten joerekin (Uriarte & Munarriz-Ibarrola, in press), nahiz eta horiengan onargarritasuna altuagoa izan (batezbestekoa 2/4).

1. irudia: H2 euskara dutenen KAdun esaldietako onargarritasun maila baldintzaka. Iturria: norberak egina.



Bestalde, aztertu genuen ea zer harreman zegoen onargarritasun juzkuetan lortutako emaitzetako batzuen (puntuazioen batezbestekoa eta hiru baldintza esperimentalen batez besteko puntuazioa) eta elebitasun profilaren artean, bereziki, hizkuntza dominantziari erreparatuta eta KArekiko erabilera eta jarrerai ere begiratuta (ikus 2. taula).

Hizkuntza dominantzia kalkulatzeko BLPko emaitza kuantitatiboan oinarritu ginen. Amengual (2016) jarraituz, honela sailkatuko lirateke gure lagineko elebidunak: 6 elebidun orekatu daude (-20 eta + 20 balio artekoak), 4 neurritz gaztelania nagusi duten elebidunak (+20 eta +50 artean) eta beste 13ak irmoki gaztelania nagusi duten elebidunak dira (+50 eta +218 artean). Dominantzia indizeak batez beste emandako juzkuen puntuazioarekin harremanik zuen aztertuta, korrelazioa ez zen esanguratsua ($p > 0,05$). Ildo berean ez zen harremanik aurkitu dominantzia indizearen eta 3 baldintza esperimentalen artean ere: $-k$ markadun subjektu iragankorreko baldintzan, euskarazko subjektuan $\emptyset$ markadun subjektu iragankorreko baldintzan eta $-k$ markadun subjektu iragangaitzeko baldintzan (denetan, $p > 0,05$).

2. taula: Parte-hartzaileen onargarritasun juzkuen eta galdetegiko datuak. Iturria: norberak egina.

Parte-hartzaileak	Onargarritasuna				KA erabilera ¹	KArekiko jarrera ²	Dominantzia indizea (BLP) ³
	Batezbesteko orokorra	Subj EUS +k igkor	Subj EUS -Ø igkor	Subj EUS +k igaitz			
P1	1	1	1	1	4	3	79,468
P2	1,3	1,5	1	1,63	4	3	104,71
P3	1,08	1	1,38	1	3	2	35,518
P4	1,31	1,5	1,13	1,38	3	3	93,54
P5	1	1	1	1	3	3	93,54
P6	1	1	1	1	3	3	101,982
P7	2,3	2,63	2,38	2	1	2	132,224
P8	1,8	2,25	2	1,88	2	3	31,886
P9	1,09	1,38	1,13	1	3	2	111,337
P10	1,02	1	1	1,13	4	3	-2,904
P11	1,25	1,13	1,63	1,25	4	2	75,558
P12	1,28	1,75	1,25	1,25	2	3	158,92
P13	1,02	1	1	1	3	3	146,662
P14	1	1	1	1	3	1	51,952
P15	2,39	2,38	2,38	2,75	2	3	158,466
P16	2,59	2,13	2,75	2,75	2	3	<u>25,334</u>
P17	1,03	1	1	1	3	2	-16,436
P18	1	1	1	1	2	3	-45,138
P19	2,16	2,88	1,38	1,38	4	3	11,448
P20	1	1	1	1	3	3	-13,172
P21	1,59	1,88	1,88	2,13	3	3	<u>41,05</u>
P22	1,8	2,25	2	1,88	3	3	-18,7
P23	1,61	1,88	1,88	1,63	4	3	18,35
P24	1,09	1,13	1	1	-	-	- ⁴
Guztira	1,4	1,53	1,42	1,42	2,96	0,94	59,81

KArekiko jarrerak onargarritasunean eraginik zuen aztertuta ere ez zen korrelazio esanguratsurik ageri, inongo baldintzatan (denetan, $p > 0,05$). KAren erabilera aitortuaren kasuan, berriz, hiru korrelazio esanguratsu ageri ziren: batetik, harremana ageri zen puntuazio totalaren

¹ 4=sarritan, 3=batzuetan, 2=gutxitan, 1=inoiz ez.


² 3=ongi iruditzen zait, 2=ez dakit zer esan, 1=gaizki iruditzen zait.

³ Elebidun orekatuen dominantzia indizea letra lodiz eman dugu eta neurritz gaztelania nagusi duten elebidunen letra etzanez.

⁴ Parte-hartzaile honek ez zuen BLPa amaitu.

eta KAren erabileraren artean ($r_{(21)} = -0,418$, $p = 0,047$), korrelazio negatibo esanguratsuak adierazten duena da zenbat eta KAren erabilera altuagoa izan orduan eta batezbesteko onargarritasun puntuazio baxuagoa eman zutela (ikus 2. irudia). Emaita berberak lortu ziren euskarazko subjektuan Ø markadun subjektu iragankorreko baldintzan ($r_{(21)} = -0,418$, $p = 0,02$) eta $-k$ markadun subjektu iragangaitzeko baldintzan ($r_{(21)} = -0,414$, $p = 0,05$). Hau da, zenbat eta KA gehiago erabili, orduan eta puntuazio baxuagoa eman zioten euskarazko subjektuan Ø marka zuten subjektu iragankorra zuten esaldiei eta euskarazko subjektuan $-k$ markadun esaldi iragangaitzetako esaldiei.

2. irudia: KAdun esaldietako onargarritasun mailaren eta KAren erabilera aitortuaren arteko harremana. Iturria: norberak egina.



4. Ondorioak

Gure helburua subjektu eta predikatu arteko alternantzia duten euskara-gaztelania KAdun esaldietan H2dunek dituzten hobespenak ezagutzea zen, bereziki kasu-markapenari dagokionez. Eta horrekin batera, elebitasun profilaren eta KArekiko erabilera eta jarreraren arteko harremanik bazegoen aztertzea. Emaitez erakutsi dute H2 euskara dutenek oro har, onargarritasun txikia erakutsi dutela KAdun esaldietan (batezbestekoa 1,4/4; $SD = 0,51$). Dena dela, H2dunek ere aldeak erakutsi dituzte baldintzen artean. Oro har, kasu-markaren hobespenak subjektua dagoen hizkuntzaren arabera dira; euskarazko subjektu iragankorretan ergatibodunak hobesten dira eta markarik gabekoak iragangaitzetan; aldiz, gaztelaniazko subjektuetan kasu-markarik gabekoak esaldi mota bietan. Emaita horiek bat datoz H1 euskaldunen emaitzekin (Uriarte, 2024 eta Uriarte & Munarriz-Ibarrola, in press), eta beraz, gure lehen aurreikuspena ez da bete. Etorkizunean, interesgarria izan liteke euskaraz gaitasun txikiagoa duten H2 euskaldunekin aztertzea ea joera berak aurkitzen ote diren.

Bestalde, gure bigarren helburuari begira, beste ondorioetako bat izan da ez dagoela korrelaziorik onargarritasun juzkuetan lortutako emaitza batzuen eta KArekiko jarrearen eta BLParen arabera hizkuntza dominantziaren artean. Hortaz, gure bigarren aurreikuspena ere ez da bete. Alegia, ez dirudi euskaraz dominantzia handiagoa dutenek erakusten dutenik onargarritasun maila altuagoa, ez eta KArekiko jarrera hobia eta KAren erabilera altuagoa (Lantto, 2015). Aldiz, onargarritasun juzkuen emaitzen eta KAren erabilera aitortuaren artean korrelazio esanguratsua aurkitu da, baina espero ez zen norabidean, hots, zenbat eta onargarritasun altuagoa, orduan eta KAren erabilera txikiagoa. Emaita hauek interpretatzeko partaideen elebitasun profileen gehiago arakatzea komenigarria izan liteke, gerta baitaiteke jarrera garbizaleak agertzea hauengan (cf. Lantto, 2015).

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Aurrera begira, interesgarria izan liteke gehiago sakontzea elebitasun profilaren eta juzkuen araberako emaitzetan, batez ere H2 euskara duten partaideen emaitzak H1 euskara dutenekin alderatuz. Bestalde, juzkuen emaitzak erantzun inkontzienteagoa lortzeko aukera ematen duten begi-mugimenduen jarraipena egiteko tekniken araberako emaitzekin osatzea (Valdés Kroff *et al.*, 2017) ere planteatzen dugu etorkizunean Uriarteren tesiari begira. Horiei esker, aztertu ahal izango dugu ea KAdun esaldietan ergatibo-marka pista lagungarria ote den egilea ezartzeko, euskara hutsezko esaldietan ikusi den bezala (Arantzeta *et al.*, 2017), elebitasun profil desberdina duten euskaldunengan.

6. Erreferentziak

- Amengual, M. (2016). The perception and production of language-specific mid-vowel contrasts: Shifting the focus to the bilingual individual in early language input conditions. *International Journal of Bilingualism*, 20(2), 133–152. DOI: 10.1177/1367006914544988
- Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 68 (3), 167-183.
- Arantzeta, M., Bastiaanse, R., Burchert, F., Wieling, F., Martinez-Zabaleta, M & Laka, I. (2017) Eye-tracking the effect of word order in sentence comprehension in aphasia: evidence from Basque, a free word order ergative language, *Language, Cognition and Neuroscience*, 32(10), 1320-1343, DOI: 10.1080/23273798.2017.1344715
- Bellamy, K., Stadthagen-Gonzalez, H.; Parafita, M.C. (2022). *Él* Code-Switches More Than *tú* yyo: New Data for the Subject Pronoun-Verb Switch Constraint. *Languages* 7, 22. <https://www.mdpi.com/2226-471X/7/1/22>
- Bellamy, K., & Parafita Couto, M. C. (2022). Gender assignment in mixed noun phrases: state of the art. In D. Ayoun (Ed.), *The Acquisition of Gender: Crosslinguistic perspectives* (pp. 13-48). John Benjamins. <https://doi.org/https://doi.org/10.1075/sibil.63.02bel>
- Birdsong, D., Gertken, L.M., & Amengual, M. (2012). *Bilingual Language Profile (BLP): An Easy-to-Use Instrument to Assess Bilingualism*. Basque adaptation: M. Arantzeta (2016). COERLL, University of Texas at Austin. URL: <https://sites.la.utexas.edu/bilingual/using-the-blp/access-testingmaterials/>
- Bullock, B. E., eta Toribio, A. J. (Eds.). (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331>
- Cook, V. (2002). *Portraits of the L2 user: Background to the second language user*. Multilingual Matters.
- Chan, B. H-S. (2009) Code-switching between typologically distinct languages. In B. E. Bullock and A. Toribio (Ed.), *The Cambridge handbook of linguistic code-switching* (182–198). Cambridge University Press.
- Elortegi, A. (2018). *Ergatiboaren jabekuntza euskara H1 ez duen haur batengan*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU]
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2010). Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskalelebidunetan. *ASJU* 52, 55-64.
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2020). Ergative marking in Basque-Spanish and Basque-French code-switching *Zeitschrift für Katalanistik* 33, 77-98. https://romanistik.unifreiburg.de/pusch/zfk/33/07_Epelde_Oyharcabal.pdf
- Ezeizabarrena, M. J. (2012). The (in)consistent ergative marking in early Basque: L1 vs. child L2. *Lingua* 122, 303-317.
- Huarte, M. (2022). Euskararen jabekuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan: zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz. *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, (134), 415-438.
- Hughes, C. E., Shaunessy, E. S., Brice, A. R., Ratliff, M. A., & McHatton, P. A. (2006). Code switching among bilingual and limited English proficient students: Possible indicators of giftedness. *Journal for the Education of the Gifted*, 30(1), 7-28.

- Iriondo, A. (2017). Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak. *Gogoa*, 16. DOI: <https://doi.org/10.1387/gogoa.18646>
- Lantto, H. (2015). Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque. <http://hdl.handle.net/10138/154646>
- MacSwan, J. (2004). Code-Switching and Grammatical Theory. In T. Bhatia eta W. C. Ritchie (Eds.), *The handbook of bilingualism* (First edition), Blackwell, Malden (MA), 415-462. <https://doi.org/10.1002/9780470756997.ch11>
- MacSwan, J. (2007). Code Switching and Grammatical Theory. In Bhatia T. K., William C. R. (Ed.), *The Handbook of Bilingualism* (323-351). Blackwell Publishing Ltd.
- Mazkieran, O. (2022) *Ergatiboaren oharrena euskara-gaztelania elebidun gaztetxoengan*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Munarriz-Ibarrola, A.; Ezeizabarrena, M. J.; Arrazola, V. DC. & Parafita Couto, M. C. (2022). Gender assignment strategies and L1 effects in the elicited production of mixed Spanish-Basque DPs. *Linguistic Approaches to Bilingualism*, 12(6), 778-815. ISSN: 1879-9264/E-ISSN 1879-9272. DOI: <https://doi.org/10.1075/lab.20016.mun>
- Myers-Scotton, C. (1993a). *Duelling Languages: Grammatical Structure in Code-Switching*. Clarendon Press.
- Oyharçabal, B. eta Epelde, I. (2017). Ergatiboaren erabilera euskaldunek egiten dituzten perpaus barneko hizkuntza lerraketetan. *Lapurdum*, (20), 185-203.
- Parafita Couto, M. C., Munarriz Ibarrola, A., Epelde, I., Deuchar, M. eta Oyharçabal, B. (2015). Gender conflict resolution in Spanish–Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 18 304-323. doi:10.1017/S136672891400011X
- Poplack, S., & Meechan, M. (1998). Introduction: how languages fit together in codemixing. *International Journal of Bilingualism*, 2(2), 127-138. doi:10.1177/136700699800200201
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2020) New speakers of Basque: a Basque-Spanish contact approach. In Oñederra, M.L. eta Igartua, I. (Eds.), *Linguistic Minorities in Europe Online*. Southern Illinois University Carbondale.
- Tardienta, U. (2021). *Gazte elebidunen euskara gaitasunak, hizkuntza ohiturak kontuan harturik*. [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Uriarte, E. (2023). *Ergatiboaren erabilera kode-alternantzia: kasu azterketa*. [Master Amaierako lana. UPV/EHU].
- Uriarte, E. (2024). Ergatiboaren erabilera euskara-gaztelania kode-alternantzia: kasu azterketa bat. *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 1(69), 207–252. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.279>
- Uriarte, E. eta Munarriz-Ibarrola, A. (2025, in press). ¿Qué nos cuenta sobre el ergativo euskaldunen kode-alternantziak? Evidencia de una tarea de juicios de aceptabilidad. In Román, G. (Ed) *Ideologías, estrategias y retos en la búsqueda del encuentro comunicativo*. Tirant lo Blanch.
- Valdés Kroff, J.R., Guzzardo Tamargo, R.E., Dussias, P.E. (2017). Experimental contributions of eye-tracking to the understanding of comprehension processes while hearing and reading codeswitches. *Linguistic Approaches to Bilingualism* 8, 98-133.
- Zawiszewski, A., Gutierrez, E., Fernandez, B., & Laka, I. (2011). Language distance and non-native syntactic processing: evidence from event-related potentials. *Bilingualism Language and Cognition*, 14 (3), 400–411. <https://doi.org/10.1017/S1366728910000350>

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa honek honako erakunde hauen diru-laguntza jaso du: Eusko Jaurlaritza [IT1627-22 eta PRE_2024_1_0051] eta MICIU [PID2023-148030NB-I00]. Parte-hartzaileei geure esker ona adierazi nahi diegu.